

NAIZ: izan aditzaren 1. pertsona singularra.

"Ni Miren naiz."

"Gaur amaxiren etxean egon naiz."

NAIZELA, NAIZENEAN, NAIZELAKO, NAIZEN, NAIZENEZ...

"Etxera itzultzen naizenean afaria prestatuko dut."

"Gaur etxeko altuena naizela konturatu naiz."

NAHIZ: esaldi kontzesiboak osatzeko lokailua.

"Nahiz eta euria egin, mendira joanen gara."

NAHIZ= EDO.

"Klasearen hasieran nahiz bukaeran, galderak egin ditzakezue."

Osatu esaldiak NAHIZ edo NAIZ hitzekin, edo NAIZ aditzaren beste adierekin (naizela, naizen, naizelako, naizenean, etab.):

- Gaur goizeko zortzietan esnatu _____.
- Ni _____ eskolako zaharrena, _____ eta ez dirudien.
- Ez dizut sekretua kontatuko, _____ eta mila aldiz eskatu.
- Arratsaldean lagunekin txirrindulaz ibiltzera joango _____.
- Kilkerrek egunez _____ gauez kantatzen dute.
- Zure etxera joaten _____, zure anaia ezagutuko dut.
- Ez _____ oso margolari trebea.
- _____ eta korrika etorri den, berandu iritsi da.
- Gaur zinemara joango _____ esan dit amak.
- Oso altua _____, erraz iristen naiz goiko apaletara.
- Gaur ileapaindegira joan _____. _____ eta garesti ordaindu dudana, pozik atera _____.
- Ni ez _____ zu bezalakoa, ez _____ hain indartsua.
- Izerditan nago, korrika etorri _____.
- Berdeak _____ gorriak, sagar guztiak gustoko ditut.
- Alaba bakarra _____, ez dut logela inorekin konpartitzen.
- Asteburu honetan hondartzara joango _____.